

ZENBAKIEKIN JOLASEAN. Piezen letrak

Kantuak:

- **Hiru txito**

Hiru txito izan eta lau galdu,
txitoaren ama zerk jan du?

Txitoaren ama, oiloa,
azeriak kendu dio lepoa.

Laralaralara, laralara...

Purra-purra egin nion atetik,
kukurruku egin zidan eltzetik,
toki onetik.

Laralaralara, laralara...

- **Bat eta bi**

Bat eta bi, hiru eta lau,
amak uretan hartu nau.
Bi eta bi lau eta, beste bi sei,
amak etxetik egin dit dei.
Sei eta lau hamar, eta hamar hogei,
nork kontu egin lore hauei?
Hogei bosteko ehun zuzen,
gure bildotsak denak gizen.

Katutxo bat zuri-gorria,
kaletikan etorria.

Goxoro goxo,
makur-makurra,
etxe barruan lapurra.

Txoriak kanta, katuak zain,
zeren ametsez dago ernai?

Goizean goizik kaiola hutsik,
egunak ez du kanturik.
Katua kanpoan pozik,
etxea isil-isilik.

Asmakizuna:

- Hiru hanken gainean bi hanka, alboan hanka, etorri lau hanka, kendu hanka, jaiki bi hanka, jaurti hiru hanka, jo lau hanka eta hartu hanka. Zer dela pents? (Gizon bat hiru hankako aulkitxo batean eserita dago eta bere ondoan bildots baten izterra dauka. Orduan txakurra agertzen da eta bildotsa lapurtzen dio. Eta gizona, haserre, aulkitik jaiki, aulkia bota, txakurra jo eta hanka berreskuratzen du)

Ipuinak:

- **Zerria landan**
Erraten dute Bortzirietan, elkarren ondoan dauden Arantza eta Igantzi herrietako ezkilek honela egiten zutela:
- Tan-tan! Tan-tan! Tan-tan!
Eta bertzeak:
- Tin-tirin! Tin-tirin! Tin-tirin!
Nonbait, horrek erran nahi zuen Arantzakoak “Zerria landan! Zerria landan! Zerria landan!” erraten zuela, eta bertzeak “Atera! Atera! Atera!” erantzuten ziola.
- **Bakailaoa saltsan**
Esaten denez, Baztango hiru herritako ezkilek beraien artean hitz egiten zuten, e?
Almandozkoak zera esaten zuen:
- Ttakata ttak! Ttakata ttak! Ttakata ttak!
Berroetakoak:
- Poun! Poun! Poun! Poun!
Eta Anizkoak:
- Ttikittik ttak! Ttikittik ttak! Ttikittik ttak! Ttikittik ttak!
Baina benetan esan nahi zutena zera zen:
Almandozkoak:
- Bakailaoa saltsan! Bakailaoa saltsan! Bakailaoa saltsan!

Berroetakoak:

- Balukek, janen lukek! Balukek, janen lukek!

Eta Anizkoak:

- Baduk eta ekarrak! Baduk eta ekarrak! Baduk eta ekarrak!

Zirtoa:

- Zer?
- Lehenagoa berriz ere!

Erranak/esamoldeak:

- Goseak amorratzen egon
- On egin